

## **STEE-EILASEK ITUNPEKO IKASTETXEETAKO PATRONALEK -KRISTAU ESKOLAK ETA PARTAIDEK- LAN HITZARMENAK ETA EPAIA BETETZEA ESKATZEN DU**

Atzo, urtarrilak 15, STEE-EILASen EAEko itunpeko Ikastetxeetako ordezkari sindikalek elkarretaratzea egin zuten Kristau Eskola eta Partaide Itunpeko Ikastetxeetako erakunde patronal nagusiei Epaitegi Gorenaren epaia eta, aldi berean, lan hitzarmenak bete ditzaten eskatzeko.

Bi hilabete pasa ondoren Itunpeko Ikastetxeetako erakunde patronal nagusiek – Kristau Eskola eta Partaide-, beste patronal erakundeek ez bezala, epaia bete gabe jarraitzen dute eta adierazi dutenez ez dute betetzeko inolako asmorik. Bi urte pasatxo daramagu kontu honekin eta aipatu patronal erakundeek legea bete gabe daude eta hitzarmenak aitortutako eta Auzitegi Gorenak berretsiriko langileen eskubideak urratzen darraite.

Elkarrateratzea egin aurretik ordezkarien batzarra izan genuen eta abenduaren 19an izandako Gizarte Ekimenezko Ikastetxeen Lan Hitzarmenaren negoziazioa mahaiaren inguruan aritu ginen eta negoziazio koletiborako irizpideak finkatu ziren. Negoziazio mahaiaren hurrengo bilera datorren urtarrilaren 25ean izango da.



**ARABA:** Eulogio Serdan, 5      01012 Gasteiz      ☎ 945 14 11 04      📠 945 14 43 02      [araba@stee-eilas.org](mailto:araba@stee-eilas.org)

**BIZKAIA:** Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)      48003 Bilbao      ☎ 944 10 02 98      📠 944 10 13 60      [bizkaia@stee-eilas.org](mailto:bizkaia@stee-eilas.org)

**GIPUZKOA:** Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)      20015 Donostia      ☎ 943 46 60 00      📠 943 45 36 27      [gipuzkoa@stee-eilas.org](mailto:gipuzkoa@stee-eilas.org)

**NAFARROA:** Descalzos, 72 (lonja)      31001 Iruñea      ☎ 948 21 23 55      📠 948 22 97 90      [nafarroa@stee-eilas.org](mailto:nafarroa@stee-eilas.org)